

DISCIPULOS DE DIONISOS

★★ Los enigmas de la conducta humana ★★



Discipulos de Dionisos taldea hiru gaztek (**Pedro Norte**, **Chico TT** eta **Juan Jolmes**) sortu zuten **Donostian** 1991n; porno zinearen eragin izugarria zuten. Filmetan ikusitakoa eta ikasitakoa musikara eramatea bururatu zitzaion. Ezer asko jakin gabe ere, musika egin daitekeela frogaturik dago, eta eurek egin nahi zuten estiloaren, hots, punk musikaren goiburua horixe dio: "zuk zeuk egin". Hasiera kaskar baten ondoren, poliki poliki trebatuz joan ziren nor bere musika tresnarekin. Helburua bera zen garratzitsuena, musika egitea, eta bitartekoak osatzen joango ziren. Taldeari ere izena era horretan jarri zioten: filosofiako ikasgaiari esker, **Nietzsche** filosofoari hartu zioten Dionisos izena. **Buenawistan** hasi ziren entseguak egiten eta gogo izugarriarekin maketa bat argitaratu zuten, kopia guztiak salduz istant batean. Castellongo **No Tomorrow** diskoetxeak 1996an "**Adictos al porno guarro**" argitaratu zuen. Benetako hazia jarrita zegoen eta ziztu bizian izena lortu zuten estatu osoan. Kontzertuak basatiak ziren. Abiadura handiko abestiek eta hitz pornografikoek jende andana erakarri zuten beren punk-rock musikara. **Spartakus** taldekide berria sartu zen taldean. 1998an, diskoetxe berberarekin, "**Con pelos en la lengua**" diskoa kaleratu zuten. Discipulos de Dionisos taldearen izena oso ezaguna egin zen punk musikaren inguruetan eta taldearen zuzeneko ikusteko irrikitan zeuden toki askotan. Kilometro asko eta kontzertu ugari. Nekeak agertzen dira taldean eta baita aldaketak ere. Discipulos de Dionisos Juan Jolmes, Spartakus, **Berto Sifreddi** eta **Mr Malo Malone** dira, eta 2003an **H-records** diskoetxearekin "**Como una droga!**" diskoa kaleratuko dute. Baina Malonek ez zuen gehigi iraun, **Ion Stagliano** izango da Discipulo berria. 2007an Discipulos de Dionisos taldeak **picture disc** bat (koloreetako biniloa) argitaratu zuten Txorlitohead taldearekin batera, eurek ekoiztia.

Discipulos de Dionisos taldearen laugarren diskoak "**Los enigmas de la conducta humana**" du izenburua. Psikologia tratatuaren antza gehiago du disko baten izenburua baino. Baina Discipulos de Dionisos taldearen beste kolpe ponografikoa baino ez da, gizakiaren psikologiaren azterketa bat egin izanaren emaitza. Jakintsu bihurtu zaizkigu Discipulos de Dionisos taldekideak eta, gainera, musika doinua jarri diote egindako tratatuari. Demasa. "Los enigmas de la conducta humana" diskoa 2008an **Jorge Reboredo** soinu teknikariak ekoizti eta masterizatu du, baita perkusioa jo ere "Tu quieres mi speed" abestian, eta "Corazón Salvaje" abestian konponketak egin ditu. **Sara eta Giselak** "Todo un año en Hawai" eta "Vas a probar mi puño" abestietan koruak egin dituzte. "Mi obligación" abestia Pedro Nortek eta J. Jolmesek idatzi dute. Beste guztia Discipulos de Dionisos taldeak egin du. Barruko argazkiak eta azala: **Txalo 84**. Igerilekuko argazkiak: **Niko**.

Discipulos de Dionisos taldearen diskorik erakargarriena da "Los enigmas de la conducta humana". Grabaketa bikaina du. Betiko abiadura azkarrean doaz abestiak, bata bestearen atzetik etenik gabe. Aurreko diskoetan bezala, honek ere 16 abesti ditu, baina 17.ena eta hurrengoak entzuteko gogoia pizten dizu Discipulos de Dionisos taldeak. Punka eta rocka era basatian bat eginik, baina entzuteko ikaragarriko erraztasunarekin. Keinu txikiak surfari eta rockabillyari. Testuek barre irriñoa eragiten dizute. Dena oso arin doa, kaskarinak dira. Kaskarin bikainak, donostiarrak. Musika lizuna eta zantarra. Punk-rockaren alderik likitsena.

Ezinbestekoa al da sexua rock munduan?

Guk banandu ezina den harremana ikusten dugu bi kontzeptu horien artean. Gure kantetan, oso gordin, mota guztietako sexu harremani buruz hitz egiten da, amodiozkoak eta desamodiozkoak. 80ko hamarkadako porno zinezaleak izateagatik, gai horrek askotan itsutu egiten gaitu. Egia da Discipulos de Dionisos taldeak sexua oso era zoroan bizi duela, baina geure artean hain harreman ona izanda, bakoitzaren sexu bitxikeriak arazorik gabe onartzen ditugu, eta batzuetan melodia berriak sortzeko inspiratzen gaituzte. Itsutzen gaituzten beste gaiak hauek izan daitezke: janaria, sexua eta janaria, erlijioa eta sexua, globoz bidaiatzea eta aintzinako drogekin esperimentatzea.

Azalean sexua ageri da, baina ez da oso azal rockzalea, ezta?

Ez genuen egin nahi betiko azal rockeroa, guri gehien gustatzen zaiguna irudikatu nahi genuen: arte errealista. Institutuan ikasten genuen garaian, sasjakintsuak besterik ez izateagatik, harriak botatzen zizkiguten. Lagun horiek beren amets ilunenak betetzeko ordaintzen ziguten gero. Nahi zuten material guztia lortzen genien, badakizu, primerako materiala. Nola edo hala lagun horiek saltzen ari ginela sentitzen genuen haien emazteak maitatzen genituenean, senarrek euren bidaietaz gozatzen zuten bitartean. Eta, gainera, ordaintzen ziguten; gizakien jokaeraren enigmak dira. Hori zen azalean irudikatu nahi genuena eta, gure ustez, lortu da.

Punkaren zer sailetan ikusten duzue Discipulos de Dionisos taldearen musika?

Ez gaude etiketen alde, kamiseta guztiak kentzen dizkiegu, baina betidanik jendeak esan du porno-punk estiloa asmatu genuela, eta eragin handia izan duela talde askorengan. Baina gauza bat esango dizut: gurea bezalako taldea, bakarra dago, eta desagertzean ez da halako beste bat egongo.

Berto Sifreddi: gitarra


Spartakus: baxua

Ion Stagliano: bateria

Juan Jolmes . **G**: gitarra, ahotsa

myspace.com/dddionisos

ritxi aizpuru (2008ko azaroaren 28)



baga-biga musika ideiak
telef. 618 072 076 /026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com